



LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Justizia Sailburuordetza
Justizia Administrazioiko ZuzendaritzaDEPARTAMENTO DE TRABAJO Y
JUSTICIAViceconsejería de Justicia
Dirección de la Administración de Justicia

EBAZPENA, 2017KO URTARRILAREN 23KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, EUSKARA-IKASTAROAK 2016/2017 (DEIALDI OSAGARRIA) EGITEKO ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA

Justizia Administrazioiko langileen euskarazko hizkuntza-gaikuntza sustatu eta bultzatzeko asmoz, Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak 2016/2017 ikasturterako deialdi osagarria egin du.

Ebazpen honen bidez, deialdi osagarriko euskara-ikastaroak egiteko onartutako eta baztertutako zerrenda onartzen da (ikusitako gehigarria).

Egindako deialdia betez, oro har organo judizial bereko plantillaren %30ak baino ez du lanorduetan 2 orduko ikastaroetara joaterik izango; berdin 5 orduko ikastaroetarako ere. Horretarako kontuan hartuko dira urrian hasi zirenak, modulu-aldaketaren ondorioz hasiko direnak eta deialdi osagarrian ezarritako baldintzak bete dituzten partaide berriak. %30 hori neurtzeko, kokaleku desberdinetan dauden eta bereiztutako zerbitzuak ematen dituzten organo-unitateetan, ehuneko unitate txiki horietako bakoitzean ezarriko da.

Deialdian ezarritakoa betetzeko asmoz, hona hemen Zuzendaritza honek zerrendak egiteko jarraitutako lehentasun- eta baztertze-irizpideak, kode bidez laburturik eta kontuan hartutako ordenean:

Kodea	Irizpidea
1	Lanpostuari dagokion maila lortuta izatea, nahiz eta oraindik egiaztatuta ez izan.
2	Bere organo judizialeko plantillaren %30a jadanik eskoletara joatea.
3	Deialdi osagarrian eskaera berriak onartzeko ezarritako baldintzak ez betetzea.
4	Kidegoari esleitutako hizkuntza-eskakizuna edo baliokide den maila gainditua izatea. (5 ordu)
5	Aurreko ikasturtean euskara-ikastarorik egin ez izana. (5 ordu)
6	Eskatzen den gutxieneko euskara-maila ez izatea. (5 ordu)
7	Beste ikastaro mota bat egiteko ezintasuna ez egiaztatzea. (autoikaskuntza)
8	Aurreko ikasturtean/1. lauhilekoan aprobetxamendua bete ez izana (asistentzia/urratsa). Ikaslearen ikasketa-ibilbidea.
9	Justizia Administrazioan momentu honetan lan ez egitea.
10	Ebazpena argitaratu aurretik eskatzaileak berak eskatutako ikastaroari uko egin izana.
11	2015/2016 ikasturteko deialdi orokorrean ikastaroari uko egin izana behar bezala arrazoitu gabe.
12	Mailaketa-proba egiteko zain/ebaluaketa-probaren emaitza jakiteko zain egotea.
13	Mailaketa-proba ez egitea eta ez justifikatzea.
14	Eskatutako modulua deialdiaren eskaintzarekin bat ez etortzea.
15	Euskaltegia eta lantokia urrun egotea (20 minutu baino gehiago).
16	Zerbitzu-betebeharrak egotea.
17	Eskaera epez kanpo aurkeztu izana.
18	Bulego Judizial Berrian hizkuntzagatik bereiztutako dotazioa hautatu ez izana, aukera izan arren.



Interesdunek ebazpen honen kontra **gora jotzeko errekurtsua** aurkez dezakete Justizia sailburuorde andreari zuzendua. Horretarako **hilabeteko epea** izango dute, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita **otsailaren 23ra** bitartean (biak barne).

Dagozkion ondorioetarako jakinarazten da.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urtarrilaren 23an

A handwritten signature in blue ink, consisting of several overlapping loops and lines, positioned above the name of the official.

Mª Amparo López Antelo
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA